

## BALIO PROPOSAMENA

Guk, Aiert Garrok, Naia Gonzalezek, Urtzi Gonzalezek, Alex Lopezek eta Ibane Prietok BlueWallett taldea osatu dugu. Kartera digitalen sektorean hobekuntza handi bat proposatzen dugu. Gure kartera digitalaren berezitasuna honakoa da: edozein txartel eramateko aukera ematen du, dena aplikazio bakar batean ez egoteko denbora guztian karteran ateratzen eta sartzen, izan ere askoz ere atsegina da dena sakelekoan eramatea, horrela poltsikoetan gauza gehiegi eramatearen, eta txartel asko ditugunaren ondorioz, momentuan behar dugun txartela ez aurkitzearen arazoak konponduko ditugu. Horretaz aparte, gure aplikazioak bi erabiltzaile mota izango ditu, batetik doainekoak eta bestetik premiumekoak. Doain dutenak hiru txartela izateko aukera dute eta premiumekoak berriz nahi dituzten guztiak izan ditzazke euro baten truke. Gure helburua produktu honekin sektorea berritzea da, kalera ateratzean jendearen bizitza erraztea eta erabiltzeko erreza den produktu bat sortzea da.

Gure enpresa berriak **lana** asko **erraztuko** digu, ez baitugu kartera egunerokoan gurekin eramane behar. Etxetik ateratzerakoan egunean zehar beharrezkoak izango diren gauzak hartzen ditugu: sakelekoa, kartera, giltzak etb. Sortuko dugun aplikazioaren bitartez gauza bat gutxiago hartuko genuke, sakelekoarekin batera kartera eramango genukeelako. Askotan presa handiz ateratzen gara etxetik eta kartera ahazten dugu, baina gure aplikazioarekin ez genuke arazorik izango mobilean beharrezko txartela guztiak edukiko genituzke eta.

Gure enpresa eta gure produktua definitzen duen beste ezaugarri bat **berritasuna** da, ez sortuko dugun produktua erabat berria delako, baizik eta sortu nahi dugun produktuak bere sektoreko produktuak berrituko dituelako, izan ere, gure ustetan, existitzen diren kartera digitalak, oso desaprobetxatuak daude. Azken finean, kartera digital horiek kreditu txartelak sartzeko baino ez dute balio, baina horrek ez du inolako abantailarik ematen, kasu espezifiko batzuetan izan ezik, azken finean kalera ateratzean, txartel gehiagorekin ateratzen zara, beraz kartera digital hori izan arren, karterarekin ateratzea beharrezkoa da. Gure aplikazioak arazo hori konponduko du edozein txartel mota onartuz, bai kredituzkoak, bai autobusekoak, horrela gaur egungo kartera digitalek ezbezala, gure produktuak karteraz prezinditzen utziko dizu, gure produktua berritzailea, erabilgarria, eta batez ere eramangarria.

Gure produktuaren **erabilgarritasunaz** baliatu dezakegu, izan ere, oso erraza da erabiltzen. Aplikazioan sartu eta bertan agertuko dira behar dituzun txartela guztiak. Gauzak errazte aldera, gehien erabiltzen dituzun txartelak edo norberak gustoko dituenak finkatuak geldituko dira goiko atalean, behar dituzunean azkarrago aurkitzeko eta eskura izateko, horretaz gain, txartel guztien ordena eskuz aldatu ahal izango duzu, txartelak bilatzean, komoditate handiena izateko, gainera txartelak denbora guztian pantailan egongo dira, bat behar duzunean arengana azkarrago iristeko. Horretaz aparte, txartela modu azkarrean eta intuitiboan sartu ahal izango dugu, hau da, ez ditugu bi minutu baino gehiago beharko txartel bat aplikazioan sartzeko, izan ere kontsumidorearen denbora errespetatzen dugu eta ez dugu nahi gure aplikazioarekin denbora galtzea.